



## FUNDACIÓN ERESBIL-ARCHIVO VASCO DE LA MÚSICA/ERESBIL-MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA FUNDAZIOA

### **Sozietatearen izena**

Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música/Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa

### **IFK**

G75061200

### **Izaera**

Fundazioa.

### **Kontabilitate-arabidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-arabidea**

Ez da aplikatzekoa.

### **Sorrera**

1974ko ekainean, Errenteriako Andra-Mari Abesbatzak Euskal Ereslarien Bilduma-Archivo de Compositores Vascos erakundea eratu zuen, herri horretako Kaputxinoen komentuan.

1986ko maiatzaren 6an, erakunde hori Patronatu bihurtu zen [«Eresbil» Euskal Ereslarien Bilduma-Archivo de Compositores Vascos Patronatua sortzen duen maiatzaren 6ko, 110/1986 DEKRETUARI](#) jarraiki. 2002ko otsailaz geroztik, Eresbilek Niessen eraikinean dihardu lanean, Errenteriako Udalak egindako doako lagapenaren ondorioz.

2011ko martxoaren 15ean, "Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música/Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa" fundazio pribatua eratu zen, irabazi-asmorik gabe eta mugarik gabeko iraupenarekin. 2011ko abenduaren 27an, Eresbil Patronatuaren Zuzendaritza Batzordearen ohiko bilkuran, erakundea desgitea onartu zen. Hala, Batzorde likidatzaileak proposatu zuen eta aho batez ebatzi, 2012ko urtarrilaren 1ean, "Euskal Ereslarien Bilduma-Archivo de Compositores Vascos" Patronatuaren aktibo eta pasiboak "Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa" Fundazioari eskualdatzea. Ebatzi zuen, halaber, fundazioari Eresbileko langileen transferentzia proposatzea.

Fundazioen Erregistroan inskribatu zen fundazioa [«Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música / Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Herrizaingo, Justizia, eta Herri Administrazio sailburuaren 2012ko irailaren 19ko AGINDUA](#) betez.

### **Sail-atxikipena**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

### **EJSN**

9106 Artxibo-jarduerak.

## Fundazioaren xedea eta helburua

Euskal musika-ondarea, eta bereziki, euskal konpositoreen produkzioa ikertu, bildu, gorde eta hedatzea da fundazioaren helburua.

## Sailkapena kontabilitate nazionalan


Sozietate ez-finantzarioak.

## Fundazio-zuzkidura

168.085 €

## Fundazio-zuzkiduraren osaera

EAEko Administrazio Orokorra	% 32,62
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 32,62
Errenteriako Udala	% 16,31
Andra Mari Abesbatza	% 18,44



## Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritzza eta kontroleko eskumen guztiak. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

José Ángel Muñoz Otaegi jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Clara Montero Telletxea andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Ikerne Badiola Garciandia andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Irune Balenciaga Arrese andrea	Errenteriako Udala.
Julen Mendoza Pérez jauna	Errenteriako Udala.
M <sup>a</sup> Carmen Garmendia Lasa andrea	Andra Mari Abesbatza.

## 2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

## 2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	3.802.297 €
Ondare garbia	3.727.390 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	10

## Sozietatearen helbidea

Alfontso XI.a, 2 - 20100 Errenteria (Gipuzkoa).

## Webgunea

[www.eresbil.com](http://www.eresbil.com)